



KONTZERTU DIDAKTIKOAK
KONTZERTUAK FAMILIAN

2009

Bilbon, 2009ko urtarrilaren 16an

Urtarrilaren 24aren (larunbata) eta maiatzaren 9aren (larunbata) artean, 17 saio eskainiko dira 9 egunez, eta hori izango da BOSek eta BBK-k gazteenei eta familiei aurkeztuko dieten eskaintza zehatza. 17 saio horietatik lau, familiei irekitakoak izango dira, lau euroko sarrera bakar eta merkearekin.

2009 honetan, BOSek berrikuntza garrantzitsuak sartuko ditu Kontzertu Didaktikoak eta Kontzertuak Familiar programetan, 2004tik martxan dituen kontzertuen antzeko egitura mantenduko badu ere (urte hartan sortu zen Kontzertuak Familiar programa). Berrikuntza horiei esker, umeak errazago hurbildu ahal izango dira kultur jarduera hauek:

- Eskaintza handitu egingo da; aurreko urteotan 8 saio egin dira lau egunez, eta aurtan, berriz, 17 saio 9 egunez.
- Kontzertu didaktikoak (10 saio bost egunez), asteburuetan izatetik astegunetan eta eskolako ordutegietan izatera pasatuko dira. Kontzertuak Juan Crisostomo de Arriaga Musika Kontserbatorioko auditorioan izango dira, Ibarrekolandako metro geltokiaren irteeraren ondoan.
- BBK-ko Gaztedi Klubari eskainitako kontzertuak 3 izatera pasatuko dira (otsailaren 28an, apirilaren 25ean eta maiatzaren 9an, 11:00etan, Euskalduna Jauregiko A-1 aretoan).
- Aurtan, lehen aldiz, kontzertu didaktiko bat egingo da Basurtuko Ospitalean, bertan ospitaleratuta dauden edo bertan tratamendua jasotzen ari diren umeei zuzenduta.

Kontzertu Didaktikoak

Bilbao Orkestra Sinfonikoa 1984-1985 Denboraldian hasi zen kontzertu didaktikoak sartzen bere jardueren barruan. Gazteenentzat pentsatutako bederatzik kontzertu haiek Beethovenen sinfoniak jo ziren, eta, geroztik, 20 urte joan dira. Urte hauetan guztietan, gazteei denbora eta espazio jakin bat eskaintzeko konpromisoa hartu du BOSek, bere jardueren barruan. Modu horretan, gazteenak musika klasikora hurbildu daitezke, bereziki eurentzat pentsatutako programen bitartez eta kontzertuan zehar eszenatokian gertatzen dena hobeto ulertzeko aukera emango dien planteamendu didaktikoa erabiliz.

2008-2009 denboraldi honetan, BBKren lankidetzara eta babesarekin (hori, dagoeneko, ohitura bihurtu da), BOSek beste behin ere hartu du konpromiso bera, baina berrikuntza garrantzitsuekin.

- Gazteenei berriaz eskainitako saio kopurua handitu egingo da.
- Kontzertuak aste barruan eta eskola-orduetan izango dira. Modu horretan, ikastetxeek aukera gehiago izango dute ikasleak kontzertu didaktikoetara joan daitezkeen.

- Kontzertuak Bilboko Kontserbatorioko auditorioan izango dira, Ibarrekolandako Plazan, metro irteeraren ondoan.

Egitarau didaktikoa hau izango da:

| Urtarrilaren 28-29-30ean | |
|--|---|
| <p>Menuda Orquesta</p> <p>J.S. Bach, J.L. Turina, G. Holst, W.A. Mozart, R. Schumann eta F. Mendelssohnen musika Ruth Prietoren gidioa</p> <p>Bilbao Orkestra Sinfonikoa Iker Sánchez, zuzendaria Mikel Cañada, narratzailea</p> | <p>KONTZERTU DIDAKTIKOAK Bilboko J.C. Arriaga Musika Kontserbatorioa Auditorioa Gaztelaniaz 10:00etan 11:30ean Plaza-kopurua: 360, saio bakoitzeko</p> |
| Apirilaren 29-30ean | |
| <p>Pulcinella <i>Commedia dell'arte delakoko pertsonaia dibertigarrienaren istorioa</i></p> <p>Igor Stravinskyren musika Fernando Palaciosen testua</p> <p>Bilbao Orkestra Sinfonikoa Iker Sánchez, zuzendaria Javier Irigoyen, narratzailea</p> | <p>KONTZERTU DIDAKTIKOAK Bilboko J.C. Arriaga Musika Kontserbatorioa Auditorioa Euskaraz 10:00etan 11:30ean Plaza-kopurua: 360, saio bakoitzeko</p> |

Kontzertu hauek ikastetxeekin lankidetzan egiten dira, eta, beraz, ez dago sarrerarik salgai.

Kontzertuak Familian

2004an, BOSeK eta BBK-k proiektu berri hau abian jarri zutenean, ziur zeuden, gure gizartean dagoen musikarekiko zaletasuna dela eta, urrats bat gehiago eman behar zela hogeitau urte lehenago hasitako bidean: gazteenek gurasoekin batera gozatu behar zuten musikaz.

Helburua argia da. Ume eta gazte askorentzat, musika klasikoa helduei zuzendutako zerbait da, oso gauza aspergarria, etiketaz jantzita entzun beharrekoa. Kontzertu didaktikoei esker, konturatzen dira akatsa dela pentsatzea musika klasikoa asperdurarekin lotu behar dela. Gertatzen dena da, kontzertu hauetan, kontzertu "normaletakoa" ez den giro batean entzuten dela musika. Ume eta gazte horientzat, "helduekin" batera kontzertu batera joan ahal izateak, eurentzat baina helduentzat ere

pentzatutako egitarau bat entzuteko aukera izateak, estereotipo horiek apurtzeko balio dezake.

Gainera, eta hau ia-ia aurrekoa bezain garrantzitsua da, ordubetez guraso-umeeek musika handiarekin goza dezaten balio dezake. Eguneroko bizitzak aukera gutxi eskaintzen ditu guraso eta umeeek batera ondo pasa dezaten, are gutxiago kulturaren munduan. Gauzak horrela, helburu hori lortuta, BOSen *Kontzertuak Familiar* ekimenaren xede nagusia beteko da: denbora eta espazio bat eskaintzea, familia osoak batera goza dezan musika klasikoarekin.

Txikienen arreta mantentzeko, musika narrazio batez dago lagunduta.

2009ko Kontzertuak Familiar programaren egitaraua

Aurten, berrikuntza garrantzitsu bat sartuko da: BOSen jarduera honen barruan, familiei eskainitako saioak gehiago izango dira.

Urtarrilaren 24a, larunbata

Menuda Orquesta

J.S. Bach, J.L. Turina, G. Holst, W.A. Mozart, R. Schumann
eta F. Mendelssohn musika
Ruth Prietoren gidioa

Bilbao Orkestra Sinfonikoa

Iker Sánchez, zuzendaria
Mikel Cañada, narratzailea

KONTZERTUAK FAMILIAN

Euskalduna Jauregia
Auditorioa
12:30ean
Gaztelaniaz
Honakoentzat
gomendatua:
Plaza-kopurua: 1.000

Prezioa: 4 € (orokorra)
3 € (BOSeko
abonatuak)

Otsailaren 28a, larunbata

Zer nolako per...kusio eguna!

Belén Otxotorena eta Javier Irigoyenen testua

BOSeko perkusionistak

Javier Irigoyen, narratzailea

KONTZERTUAK FAMILIAN

Euskalduna Jauregia
A1 aretoa
12:30ean:
publikoarentzako
salmenta
Euskaraz
8 urtetik gorakoentzat
gomendatuta
Plaza-kopurua: 600,
saio bakoitzeko

Prezioa: 4 € (orokorra)
3 € (BOSeko
abonatuak)

Apirilaren 25a, larunbata

Kantika

Leioako Kontserbatorioko umeen abesbatza

Basilio Astúlez, zuzendaria eta aurkezlea

KONTZERTUAK FAMILIAN

Euskalduna Jauregia

A1 aretoa

12:30ean:

publikoarentzako

salmenta

Euskaraz

8 urtetik gorakoentzat

gomendatuta

Plaza-kopurua: 600,

saio bakoitzeko

Prezioa: 4 € (orokorra)

3 € (BOSeko

abonatuak)

Maiatzaren 9, larunbata

Pedro y el Lobo

Per-Poc txotxongilo konpainia

S. Prokofieven musika

Bilbao Orkestra Sinfonikoa

Iker Sánchez, zuzendaria

KONTZERTUAK FAMILIAN

Euskalduna Jauregia

A1 aretoa

12:30ean:

publikoarentzako

salmenta

Gaztelaniaz

Plaza-kopurua: 600,

saio bakoitzeko

Prezioa: 4 € (orokorra)

3 € (BOSeko

abonatuak)

Sarrerak salgai daude jada Euskalduna Jauregiko txarteldegietan eta BBKren Teleka sisteman, eta prezioa **lau eurokoa** da. Kasu guztietan, kontzertuak ordubete inguruko iraupena izango du.

BOSen beste jarduera didaktiko batzuk

Gaur aurkezten ditugun Kontzertu Didaktikoak eta Kontzertuak Familian programako kontzertuekin batera, BOS jarduera ugari egiten ari da oso publiko mota desberdinentzat.

Musikarekin jolastuz.

08-09 Denboraldian, **BOSek** esparru berri bati ekin dio, jarduera musikala txikiengana (5 eta 9 urte bitarteko umeak) eramateko. Hori horrela, zenbait tailer

sortu ditu, eta, modu horretan, umeek instrumentuen familiarekin (haria, egurrezko haizea, metalezko haizea eta perkusioa) egiten dute topo, eta saio dinamiko horretan, umeak, orkestrako musikariek batera, jarduera musikalaren partaidekide izaten dira.

Horretarako, instrumentazio eta joko musikal txiki batzuk egiten dira (bertan, neska-mutikoak subjektu aktiboak izango dira), perkusio txikiko instrumentuen bidez edo umeek jotzen dituzten eta tailerrera ekarri dituzten instrumentuen bidez.

Lehenengo esperientzia pilotu honetan 4 tailer jarri dira martxan. Larunbatetan egiten dira, eta, gehienez, 25 ume egon daitezke tailer bakoitzean. Erantzuna oso ona izan da, tailer guztiak bete-beteta daude eta.

Kontzertu-aurreko solasaldiak.

BOSeK, Denboraldi sinfonikoaren hastapeneko Abonuko kontzertuekin bat eginez, 6 solasaldi antolatu ditu; bertan, modu atsegin eta errazean, eta ikus-entzunezko baliabideen bidez, kontzertuan entzungo diren lanei buruzko azalpenak ematen zaizkie entzuleei, lana hobeto ulertu eta gehiago gozatu dezaten. Une honetan, batez beste, 120 entzule ditugu solasaldi bakoitzeko.

Musika, hurbiletik

Helduentzako trebakuntza Zikloa da, eta 08-09 Denboraldian jarri da abian, **Bilboko Arte Eder Museoarekin lankidetzan**.

Ikastaroa musikazalea den edo musikarekin zaletzeko interesa duen edonori dago zuzenduta, aurretik prestakuntza jakinik izan ez arren. Beraz, mundu sinfonikora hurbildu nahi duen orori zabalduko zaizkio atearak, mundu hori hobeto ezagutzea eta berarekin gehiago gozatzea izanik helburu nagusia.

Hau da egin den lehen Zikloa, eta genero sinfonikoei egon da zuzenduta. 6 saioko zikloa izan da, eta saio bakoitzak ordu eta erdi iraun du, honakoak izanik helburuak:

- Genero sinfoniko desberdinetan pentsamendu musikala zelan antolatzen den ulertzea: sinfonia, poema sinfonikoa, kontzertua, musika inzidentala, obertura eta abar.
- Entzunaldi aktiboa ahalbidetzea, agerpen musikalak modu atseginagoan bizi ahal izateko.
- Estetika musikalak historian zehar izan duen bilakaera eta giza faktorea kontuan hartzea, diskurtso musikalaren elementu bereizleak diren aldetik. Horretarako, Arte Eder Museoko lanen proiektzioak erabiltzen dira.
- Errepertorio sinfonikoa gehiago estimatzea, zale guztientzako modukoak diren baliabideak erabiliz (prestakuntza akademikorik gabekoentzat ere bai).

Arteekin gozatuz

Etengabeko trebakuntzarako programa, **Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan** egina, Bilboko programazio kulturalaren parte diren sorkuntza artistikoen berri izan eta beraiekin gozatzeko. Proiektua Bilboko instituzio artistiko nagusiekin (OLBE, BOS, Arte Eder Museoa, Guggenheim Museoa eta Arriaga Antzokia) lankidetzan egiten da.

Instituzio horien jardueretik ekintza bateratu eta osagarria lortzea da helburua, arteen gaineko gozamina ahalbidetzeko, eta, aldi berean, arteak ezagutu eta ulertzeko. Ekimen honek topalekua izan nahi du, modu horretan esperientzia aberasgarriagoa bizi ahal izateko kontzertu aretoan, operan, antzokian edo museoan.

Programak 28 saio ditu, denak ostegunetan, eta Deustuko Unibertsitatean egiten dira. Horietako batzuetan, BOSeko irakasleek eta gonbidatutako zuzendariak/bakarlariek hartzen dute parte.

BOS-EHU Musika Gela

EHU/UPVko Musika Gelaren helburu nagusia musika sinfonikoarekiko interesa sustatzea da, bai eta jendea Bilbao Orkestra Sinfonikoaren zuzeneko kontzertuetara joateko bultzatzea ere. Horretarako, saioak antolatzen dira, eta, bertan, BOSen Denboraldiko zenbait kontzertu-egitarautako lanekin eta konpositoreekin erlazionatutako gaiak lantzen dira. Saio horietara aipatutako gelako parte-hartzaile guztiak joan daitezke, gonbidapenarekin.

BOSen abonuko 8 kontzertuak baino lehenagoko asteazkenean egiten dira saioak, eta 8 kontzertu horien inguruan egituratzen dira. Aukeratutako kontzertu-egitarauaren inguruko edukiak lantzen dira, eta, gainera, genero eta forma musikalei, konpositoreei eta sorkuntza musikalaren aurrean konpositoreek zituzten planteamenduei buruzko gaiak ere jorratzen dira, besteak beste.

Prestakuntzarako programa da, Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan egina, eta, beraren bitartez, BOSek konpromisoa hartzen du bere zuzendari titularrak eta gonbidatutako zuzendariak zein bakarlariek EHUk antolatutako jarduera kulturaletan parte har dezaten; besteak beste, hitzaldietan, solasaldietan, tailerretan eta abar. Gainera, jarduera horietan BOSeko musikariek ere hartuko dute parte.

EHUk musika sinfonikoaz gozatzeko gelak, tailerrak edo antzeko ekimenak sustatzen ditu, beti ere, BOSen programazioa kontuan hartuta.

Helburu nagusienetako bat da ikasleak BOSek antolatutako kontzertuetara joatea. Hori horrela, BOSek, gonbidapen gisa, solasaldiei dagozkien kontzertuetarako sarrerak ematen dizkio EHU/UPVri.

Era berean, maila akademikoan, EHU/UPVk aukera askeko kreditu gisa hartzen du bere ikasleak BOSen kontzertuetara joatea, Unibertsitatean indarrean dagoen Kudeaketa Akademikoko Araudiarekin bat etorritz.

Lankidetzak beste erakunde kultural batzuekin

BOS lankidetzan hasi da musika klasikoko prestakuntza-ildoak ireki dituzten beste instituzio kultural batzuekin ere. Lehenengo kolaborazioa **Alhóndiga** Bilbaorekin izan da, musika klasikoari buruzko ikastaro bat antolatu baitu, 55 urtetik gorakoei zuzenduta. Ikastaro hori abian jartzeko laguntza emateaz gain, prezio murriztuko sarrerak eskaini dizkiegu ikasle horiei, eta ikastaroko parte-hartzaileak kontzertu batera joan ziren. Aldez aurretik, baina, bisita gidatua egin genuen, eta, bertan, BOSen historiari buruzko informazioa jaso zuten eta kontzertuen atariko gainera kontuak azaldu zitzaizkien.